

ONDARE ETA KONTRATAZIO ZUZENDARITZAREN 3/2020 ZIRKULARRA, UZTAILAREN 29KOA. GAIA: OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA.

Begira dezagun Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko Dekretuan (116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa), 5. artikuluko 8. paragrafoan, eta ikusiko dugu Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenen artean dagoela honako hau:

“[...] c) Kontratazioaren arloan, zirkularrak ematea eta gomendioak edo arauak onartzea”.

Orain arte, zuzendaritza fakultatiboaren obligazioak hainbat agiritan sakabanaturik egon izan dira beti: lege-testuetan, obra-kontratuen pleguetan (besteak beste, kontratistaren obligazioekin koordinatzearen)... eta zerbitzu-pleguetan ere aurkitu izan da haien arrastoa.

Sektore Publikoko Kontratuen Legean dator ezarrita, lehen aldiz, kontratazio-organoak kontratu-arduraduna izendatu beharra daukala. Lege horrek 9/2017 zenbakia du, azaroaren 8koa da, eta haren bidez egiten da transposizioa, Espainiako ordenamendu juridikora, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentzarauena. Honela dio (62. artikulua):

“2. Obra-kontratuetan, kontratuaren arduradunaren ahalmenak zuzendari fakultatiboak beteko ditu, 237. artikulutik 246. artikulura xedatutakoari jarraituz.”

“238. artikulua.- Obrak egitea eta kontratistaren erantzukizuna.

1. Obrak, egin, administrazio-klausula partikularren agirian jasotako estipulazioei eta kontratuaren oinarri den proiektuari estu-estu lotuta egingo dira, eta obren zuzendaritza fakultatiboak interpretazio teknikoa eginez kontratistari emandako jarraibideen arabera. [...]»

Horrela, bada, figura horrek legean zer-nolako garrantzia duen ikusita, eta zer betebeharrak dituen zehaztu beharra dagoenez, zirkular hau osatu dugu, hartara, garbi gera dadin zuzendaritza fakultatiboak zer obligazio izango dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan kontratatzen diren obretan.

Horretarako, honako gidalerro hauek ezartzen dira, eraikuntzaren antolamenduari buruzko legeriarekin, sektore publikoko kontratuei buruzkoarekin eta indarrean dagoen garapen-araudiarekin bat etorritik, bai eta eraikuntza-obretako segurtasun- eta osasun-neurriei, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen kudeaketari eta eraikuntzaren kalitateari buruzkoarekin ere:

Lehena. - Obra baten zuzendaritza fakultatiboa (ZF) osatzen dute: obra-zuzendaritzak (OZ), exekuzio materialaren zuzendaritzak (EMZ) eta segurtasun- eta osasun-koordinazioak (SOK), non eta azken horretako araudiaren arabera ez den beharrezkoa figura berezi bat izendatzea.

Xedea, osorik edo zatiren batean, obra baten zuzendaritza fakultatiboa baldin bada, kontratu-zerbitzuetako baldintza teknikoan agiritan kontratazio-organoak honako hau jaso behar du:

"Obra orotan, hauek dira zuzendaritza fakultatiboaren **betebeharrak**:

- Zuinketa egiaztatzeko ekitaldira joatea; horretarako, obra sustatzen duen zerbitzuak egingo du zitazioa. OZk uste badu -eta kontratistak eragozpenik egin gabe-, zuinketa-egiaztapenak erakusten badu lursailak erabilgarri daudela eta proiektua bideragarria dela, obra hasteko baimena emango du. Berariaz hala jasota utzi beharko da aktan; sinaketa egiteaz batera kontratista baimenaren jakinaren gainean geratuko da; eta akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen obrak gauzatzeko epea. EMZk ere sinatu behar du akta hori.
- OZk adierazten badu projektatutako obrak aldatu egin behar direla uste duela, aktan halaxe jasoko du, kontratazio-organoak kontratua eteteko erabakia edo ebazpena har dezan. Nolanahi ere, obrak hastea eragotzi zuten arrazoiak gaindituz gero, obrak hasteko baimena emateko erabakia hartuko da, kontratistari jakinaraziko zaio, eta jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen exekuzio-epea. Kontratua eteten denetik, OZk hamabost egun ditu aldaketek zer kostu izango duten balioesteko.
- OZk, halaber, obra exekutatzen den bitartean sor daitezkeen gorabeherak ebatzi beharra ere badu, eta proiektua behar bezala interpretatzeko behar den guztia Aginduen eta Laguntzen Liburuan jaso behar du.
- Proiektuan egin beharreko aldaketak edo zuzenketak obraren sustatzailearekin adostea.
- Zuinketaren eta obraren amaierako ziurtagiriaren akta, ziurtagiri partzialak eta azken likidazioa sinatzea.
- Hilean behin, aurreko ekinaldian gauzatutako obra-unitateak neurtzea, baldintza teknikoan agirian ezarritako moduan eta baldintzetan. Egindako neurketak eta kontratatutako prezioak oinarritzat hartuta, jatorriaren arabera balioetsitako zerrenda idatziko du hileroko. Balorazioaren emaitzari, gero, lizitazioaren oinarritzako aurrekontua osatzeko erabilitako ehunekoak gehituko zaizkio, eta eragiketa horrek ematen duen zenbakia esleipen-koefizientearekin biderkatuko da; horrela lortuko da ordainketa-aldiari dagokion obra-ziurtagiriari aplikatuko zaion zerrenda baloratua.
- Balorazioak kontratistaren esku uztea, alegazioak egin ditzan, nahi baldin badu.

- Dena delako ekinaldia amaitu eta gehienez ere hamar eguneko epean, dagokion obra-ziurtagiria idaztea.
- Obra-zuzendaritzak, zerrenda baloratuarekin batera, beste plan bat aurkeztuko du, materialak eta instalazioak eta ekipoak pilotzearen kontura ordaindutako zenbatekoak itzultzeko. Materialak zein obra-unitatetan dauden ikusi, eta haren guztizko zenbatekotik kenduko dira diru-kopuru horiek. Ziurtagiriak eta obraren azken likidazioa baloratzea eta egiaztatzea.
- Kontratatistak OZri berrogeita bost egun baliodun lehenago jakinaraziko dio, idatziz, zer egunetan aurreikusten duten amaituko edo exekutatuiko dutela kontratua, jaso ahal izan dezaten. Ados egonez gero, OZk data hori kontratazio-organoari bidaliko dio, bere txostenaz batera. Amaitzeko aurreikusitako eguna baino hilabete lehenago izango da, gutxienez.
- Obraren harrera-ekitaldira joatea, kontratazio-organoak eginik zitazioa. Obrak ez baldin badaude hartzeko moduan, hala jasoko da aktan. OZren ardura izango da adieraztea zer akats antzeman diren eta zer jarraibide zehatz bete behar diren haiek konpontzeko. Horretarako, epe luzagarri bat ezarriko du, eta ez bada betetzen, kontratua suntsiarazi egin ahal izango da.
- Obrak jaso ondoren, neurketa orokorra egingo da, kontratista bertan egonik. Obrak jasotzen direnetik, OZk hilabete izango du proiektuaren arabera benetan egindakoen neurketa egiteko. Horretarako, harrera-aktan zehaztuko da neurketa hori noiz hasiko den, eta kontratista jakinarazita geratuko da eta bertaratzeko obligazioa izango du. Akta bat egingo da, eta OZk eta kontratatistak sinatuko dute, hiru aletan. OZk kontratazio-organoari bidaliko dio hirugarren alea. Kontratatistak bost egun balioduneko epea du kontratazio-organoari adostasuna edo alegazioak azaltzeko OZren bidez. OZk, gero, bere txostenera batuko ditu, hamar egun balioduneko epean. Harrera egin eta hilabetea baino lehen OZk zerrenda baloratua idatziko du, eta, epe hori amaitu eta hurrengo hamar egunetan, EMZrekin batera, azken ziurtagiria egingo du, kontratazio-organoak onar dezan.
- Berme-epea bete aurreko 15 egunetan -salbuespenez halako eperik ez badago izan ezik-, obren egoerari buruz ZFk egindako txostena aldekoa bada, edo, bestela, eraikitakoa eman zituen jarraibideen arabera konpontzen dutenean, ZFk hilabete izango du benetan egikaritutakoen likidazio-proposamena egiteko. Kontratuan ezarritako baldintza ekonomikoetan oinarrituko da balioespena egiteko. Gero, kontratatistari jakinaraziko dio, eta hark hamar egun izango ditu ados dagoela adierazteko edo egoki iritzitako eragozpenak adierazteko.
- Beharrezko agiri guztiak idaztea eta sinatzea. Obra exekutatzen den bitartean ZFk agindurik ahoz ematen badu, idatziz berretsi behar dira ahalik lasterrena, alderdientzat lotesleak izan daitezen.
- EMZk eraikuntza-materialak obran jaso behar ditu, materialok behar bezala kontrolatu behar ditu, eta, horretarako, beharrezkoak diren saiakuntzak agindu behar ditu.

- Obraren exekuzioa zuzentzea; zuinketak, materialak eta abar gainbegiratuta.
- Aginduen eta Asistentzien Liburuan beharrezko argibideak idaztea.
- Zuinketaren, obra-hasieraren eta azken ziurtagiriaren aktak sinatzea, eta ziurtagiri partzialak eta likidazioa sinatzea.
- Eraikinaren Liburua egiten laguntzea, prozesuan egindako kontrolen emaitzak emanez.

Bigarrena. Ikus ditzagun ZFKren **ahalmenak** (aktibatzeke arrazoiak gertatzen badira bakarrik erabili ahal izango dira nahitaez). Zuzendaritza Fakultatiboaren pleguetan ere sartu beharko dira, badaezpada, zerbaitengatik benetan erabili behar badira ere:

“Zehazten diren inguruabarrak gertatzen badira -ez baitira beti gertatzen-, Zuzendaritza Fakultatiboak ahalmen hauek izango ditu (besterik adierazten ez bada, OZk baliatuko ditu):

- Lan-programa derrigorrezkoa denean, obra-ziurtagiriak ez bideratzea harik eta kontratistak lan-programa hori behar bezala aurkeztu arte, baina berandutze-interesetarako eskubiderik gabe, ziurtagiriaren ordainketak berandutu arren.
- Materialen eta obra-unitateen saiakuntzak eta analisiak egiteko eta kasu bakoitzean bidezkoak diren berariazko txostenak biltzeko agintzea (EMZ bidez). Sortzen diren gastuak Administrazioaren edo kontratistaren kontura izango dira, administrazio-klausula partikularren agirian zehaztutakoaren arabera.
- Kontratistak uste badu sektore publikoko kontratuei buruzko legerian zerrendatutako ezinbesteko kasuren bat dela tarteko, orduan bakarrik egiaztatuko du, bertara joanda, benetan zer gertatu edo egin den. Eragindako kalteen balorazioa egingo du, eta baita proposamen bat ere, azaltzeko ea eman dituzten arrazoiak funtsik baduten, gertatu diren kalteekiko loturarik baduten, eta kalte-ordaina bidezkoa den ala ez.
- Konturako ordainketen itzulketak, hala badagokio, alde aurretik ezeztatzea proposatzea, itzulketa-planean aurreikusitako epeei dagokienez.
- Proiektuan agertzen ez diren materialak erabiltzea edo obra-unitateak egikaritzea beharrezkotzat jotzen denean, finkatu beharreko prezio berriei buruz OZk egiten duen proposamena honako hauetan oinarrituko da: kontratuan txertatutako unitate-prezioen deskonposizioan finkatutako oinarritzko kostuetan, eta, nolana ere, esleipena egin zen datari dagozkion kostuetan.

- Proiektuan aurreikusi gabeko unitate berriak exekutatu behar direnean, obren zuzendaritzak kontratazio-organoari igorriko dizkio prezio berrien proposamenak eta kontratua gauzatzeko epean izango duen eragina.
- Obrak benetan okupatzeko edo erabilera publikorako jartzeko akordiorik badago, obrak egiaztatzeak akta egin beharko da, eta kontratazio-organoaren, OZren eta kontratistaren ordezkariak sinatu beharko dute akta hori.
- Izaera inbentariagarriko obrak edo zer edo zer hobetzeko obrak jaso ondoren, ondasun eta eskubideen dagokien inbentario orokorrean sartuko dira. Horretarako, OZk obra exekutatuaren neurrien eta ezaugarrien egoera bat erantsiko dio harrera-aktari, egindako obrak harrera-unean dauden bezala zehatz-mehatz definituz. Horretarako, badu non begiratua: Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren uztailaren 29ko 3/2020 Zirkularraren hirugarren preskripzioa, obren Zuzendaritza Fakultatiboari buruzkoa.

Ez bada izendatu berriazko figurarik Segurtasun eta Osasun Koordinaziorako, hari dagozkion eginkizunak bete beharko ditu; batez ere, kontratistak egindako Segurtasun eta Osasun Planari buruzko txostena egin beharko du, hura aldatzea edo onartzea proposatu beharko du, behin betiko plana kontratistari bidali, eta Gertakarien Liburua bete CSSri buruzko alderdiekin. Era berean, Segurtasun eta Osasun Planaren eranskinez arduratuko da; eta plan hori kontratistaren ataletara, organo sindikaletara eta delegatui bidaliko die. Azkenik, hartu beharreko neurriak hartu behar ditu baimendutako pertsonak bakarrik sar daitezen obran. Kasu horretan, ZFk, gainera, Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren amaiera-ziurtagiria emango du.

- Obra-proiektuan aldaketa bat egin behar dela uste duenean, eta horretarako legezko baldintzak betetzen direnean, kontratazio-organoari eskatuko dio dagokion espedientea hasteko baimena.
- Kontratistak obra egiteko baliabide materialak edo giza baliabideak ordezteak proposatzen badu, edo botere adjudikatzaileak hala eskatzen badu, ZFk onartu beharko du ordezkio baliabideen egokitasuna. Obra-kontratuaren administrazio-klausula partikularren agiriaren eremuan datoz inguruabar horri buruzko izapide eta epe guztiak.
- Obrak eraikuntzak baldin badira, Eraikin Amaituaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria.
- Obra handian, gainera, hondakinen kudeaketaren azken txostenari adostasuna ematea, sinaduraren bidez, egiaztatutako erakunde batek egiazta dezan gero.
- Gainera, ZFk eraikinaren liburua egiten lagundu beharko du, nahitaezkoa denean, indarrean dagoen araudiaren arabera aurkeztu beharreko agiriak eta ziurtagiriak aurkeztuz.

Hirugarrena. - Behin obra amaituta, hirigintza-lizentzian adierazten denean lehen erabilerako lizentzia lortu behar dela (eraikuntza berrikoa edo lehendik dauden eraikinak handitzekoa bada), Zuzendaritza Fakultatiboak lehen erabilerako lizentzia lortzeko eta obra berria Jabetza Erregistroan inskribatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du; zehazki, agiri hauek aurkeztu beharko ditu, espedientean eskatutako gainerako agirietatik aparte, paperean nahiz formatu elektronikoa (CDan edo pendrivean) eta berdin diolarik lehenagotik aurkeztuta dauden eta errepikaturik dauden:

- Eraikinaren argazkiak, zer nola dagoen erakusteko moduan.
- Udalerrian non dagoen ikusteko planoak (kokaleku-planoak).
- Orubearen eskala-planoak. Eraikinak behin betiko non egongo diren ikusi behar da. Katastroko partzelarioarekiko erreferentziatua eta georeferentziatua aurkeztuko da. (Finkaren eta eraikinaren arrastoaren koordenatuak agertu behar dira: ETRS89 erreferentzia-sistema UTM proiektzioa).
- Solairu bakoitzeko eskala-planoak. Obra amaierarenak izan behar dute.
- Obraren azken Ziurtagiriaren fotokopia.
- Teknikari eskudunak emandako ziurtagiria, egiaztatzen duena lizentzia lortu zuen proiektuaren deskribapenaren arabera amaitu dela obra. Sinaduren legitimazioarekin aurkeztu beharko da.
- Word testu batean, gauza hauek denak:
 - Eraikinaren deskripzio orokorra.
 - Erreferentzia geografikoaren koordenatuak.
 - Azalera eraiki oso eta erabilgarria, baita solairuen araberrako banaketa ere.
 - Eraikinaren banaketaren deskribapena (solairuak, estalkiak).
 - Eraikuntza-ezaugarriak.
 - Egitura-sistema.
 - Fatxadak.
 - Estalkiak
 - Instalazioen laburpena.
 - Energia mota.
 - Galdarak.
 - Giroztea.
 - Eguraste-sistema.
 - Eguzki-plakak (halakorik egonez gero).
 - Energia berriztagarriak (halakorik egonez gero).
 - Beste edozein instalazio interesgarri.
 - Obraren azken kitapenaren zenbatekoa ere zehaztu behar da”.

Laugarrena. - Tasa. Hirugarrenek kontratu bidez burutzen dituzten obretan egiten diren zuzendaritza- eta ikuskaritza-lan fakultatiboak ere tasapetuta daude (kontratatuak izan edo zuzenean administrazioak eginak izan), alegia, bada tasa bat zerga-egitate hori duena, eta obra horiei aplikatu dakioke. Obrako KONTRATISTAK ordaindu behar du.

Hori dela eta, obra-kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian honen antzeko zerbait jaso behar da:

"Kontratastaren kontura izango dira hirugarrenek kontratu bidez egindako obrak zuzentzeko eta ikuskatzeko egiten diren lan fakultatiboen tasak...".

Hala jasota dago zuzendaritza honek obra-pleguetarako egindako eruedetan.

Badakigu badirela egitura-gastu orokor batzuk, obra-kontratuaren balio zenbatetsian eragina dutenak eta exekuzio materialaren aurrekontuaren % 13tik % 17ra bitartekoak direnak. Bada, Administrazioaren tasa legez ezarriak gastu horien artekoak dira, eta, beraz, baita hau ere.

Tasa hori, azkenik, zuzendaritza- eta ikuskapen-lanak egiten diren guztietan aplikatu behar da, lan horien eta obren zenbatekoa edozein dela ere, eta, beraz, ez dago obra-kontratu txikietan tasa hori baztertzeko legezko euskarririk.

Bosgarrena. - Azkenik, kontratu txikien bidez zuzendaritza fakultatiboa kanpora ateratzeko aukerari dagokionez, salbuespena izan behar du, eta bi baldintza hauek bete beharko dira, batera:

A) Obran esku hartzen duten zerbitzu-profesional guztien lanak kontratu berean batu behar dira, ez dadin kontratu txiki bat baino gehiago egon; eta denbora-plangintza egokia egin behar da, behar bezalako publikotasuna, gardentasuna eta lehia askea lortze aldera.

B) Gehienez ere hamabi hilabete egongo dira -hori da gehienezko epea- obra exekutatzeko eta obrari dagozkion zerbitzu-jarduketak egiteko, baita azken kitapena ere (baita berme-aldia ere, obra-zuzendaritzak kontrolatu behar badu).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 29a.